

**Ebazpena: R052/2023**

**Espedientea: 15/2020**

Vitoria-Gasteizen, 2023ko maiatzaren 8an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Eta honakoa erabaki dute:

## **ERABAKIA**

ASGSAk planteatutako kontsultaren inguruan Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) eta Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak (aurrerantzean, OFPM) planteatutako gatazkari buruzkoa. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 15/2020 espediente-zenbakiarekin.

## **I. AURREKARIAK**

1.- ASGSAk honako zerga-kontsulta hau aurkeztu zuen 2019ko abenduan:

Egoitza fiskala Palma de Mallorcan duen entitate bat da ASGSA, aseguru-lanean diharduena.

ASGSAk, Bizkaiko bitartekari baten bitartez, istripu-aseguru kolektibo bat kontratatu zuen Panaman helbideratutako enpresa batekin, herrialde bereko matrikula eta bandera zituen ontzi baten jabea zena, haren 22 tripulatzaileek izan zitzaketen ezbeharrak estaltzeko.

2018an Indonesiako langile bat hil egin zen lan-istripu baten ondorioz, eta aseguru-etxeak 225.000 euroko prestazioa ordaindu behar die onuradunei.

Kontsulta egin duenak jakin nahi du Oinordetzen gaineko Zerga Espainian eta, zehazkiago, Bizkaian aurkeztu behar ote duen.

**2.-** Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoan (aurrerantzean, EZKO) proposatu zuten Bizkaiko Foru Ogasunari Oinordetzen gaineko Zerga ordaintzeko betebeharririk ez dagoela erantzutea.

**3.-** OFPMk bere oharpenak egin zizkion kontsultari erantzuteko EZKOk egindako proposamenari; funtsean, Oinordetzen gaineko Zerga ZAEARI ordaintzeko betebeharra zehaztean zetzan haren proposamena.

**4.-** Bi hilabeteko epean akordiorik lortu ez zenez, Arbitraje Batzordeari jakinarazi zitzaion, ebatz zezan.

**5.-** Prozedura izapidetu da Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduak (aurrerantzean, EIABA), 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 16.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

## **II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

### **1.- Arbitraje Batzordearen eskumena**

Arbitraje Batzordeak badu kontsulta hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 64.b) artikuluan aurreikusten denaren arabera. Hau xedatzen du artikulua horrek:

*b) Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharrik egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsizat joko da.*

*Oharrik badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administraziok ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko.*

## **2.- Desadostasunaren balorazioa**

64.b) artikulua, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen eskumenei buruzkoak, eginkizun hau duela adierazten du:

*Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea.*

Ekonomia Ituna, finantzaketa-araua den heinean aztertzen bada, finantza-baliabideak Estatuaren eta EAEn artean banatzera mugatzen da. Horretarako, hainbat lotune hartzen ditu aintzat, esate baterako, zerga-egoitza, ondasun higiezinak dauden lekua, eragiketa-bolumena, eragiketa-bolumenaren proportzioa eta abar.

Alde horretatik, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen eginkizuna izan behar du, lotuneak aplikatuz, zerga-baliabide bat Estatuari edo Euskal Autonomia Erkidegoari dagokion baloratzea.

Beraz, etekina araubide erkideko autonomia-erkidego bati edo ZAEARI dagokion balioestea ez da aipatutako Batzorde horren eginkizuna, eta, beraz, Arbitraje Batzorde honen egitekoa ere ez.

Nolanahi ere, ez dago desadostasunik EZKOren erantzunean, baizik eta erantzuna zabaltzea da MHFPk proposatzen duena.

Arbitraje Batzordearen ustez, ez da onargarria Administrazioen artean planteatutako desadostasunek, soberakoak direnak zeharo Estatuaren ondorengo erantzun espezifiko baterako utzi zitezkeelako, zergapekoari segurtasun juridikoa kendu izana zerga-betebeharren betetzean, ezin baitezake berrezarri Arbitraje Batzorde honek hainbat urte igaro diren honetan.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

## **ERABAKITZEN DU**

1.- Prozedura artxibatutzat jotzea, bestelako izapiderik egin gabe, gerora bere xedea galdu duelako; hau da, arrazoizko epean erantzun bat eman ahal izatea, aseguru-etxeari zerga-betebeharrak betetzeko segurtasun juridikoa emateko.

2.- Erabaki hau Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari, Zerga Administrazioeko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoari eta ASGSARI jakinaraztea.